

EHUko IKASLE KONTSEILUAK ATZO ARABAKO CAMPUSEAN GERTATUTAKOAK GAITZESTEN DITU ETA MARTXOAREN 3ko 50. URTEURRENEAN ETENALDI AKADEMIKOA EGITEKO ESKUBIDEA DEFENDATZEN DU

Puede leer la nota en castellano [aquí](#).

2026ko martxoaren 16a – 1976ko martxoaren 3a Vitoria-Gasteizko eta herrialde osoko memoria kolektiboaren parte da. Duela 50 urte, Zaramagako Asisko San Frantzisko elizan bost langile erail zituzten eta dozenaka zauritu, langile antifrankisten asanblada batean parte hartzen ari zirela. Poliziaren bortizkeria agerian utzi zuen gertakari honek gure historia sozial eta politikoa sakon markatu zuen.

Euskal Herriko Unibertsitateko (EHU) Ikasle Kontseilutik ikasleriak memoria historiko eta demokratikoaren eraikuntzan eta transmisioan zeresana ere baduela uste dugu. Gogoratzea ez da keinu sinboliko hutsa.

Testuinguru horretan, EHUko Ikasle Kontseiluaren Batzorde Iraunkorrek unibertsitate osorako martxoaren 3rako etenaldi akademikorako deialdia onartu zuen otsailaren 28an, gehiengo kualifikatuz, Ikasleen Araudian xedatutakoari jarraituz. Izan ere, etenaldi akademikoak ikasleoi aldarrikapenerako eta protestarako eskubidea bermeeekin erabiltzeko aukera ematen digun eta Unibertsitateko arauetan hala aitortutako tresna da.

Arabako Campusean atzo jazotakoaren inguruan

Atzo goizean Arabako Campuseko hainbat eraikinetan ke-potoak erabili zirenaren berri izan genuen. Horrek Unibertsitate Komunitate osoa jarri zuen arriskuan eta ebakuazio-protokoloak aktibatzerako eta eskolak etetera behartu zuten.

EHUko Ikasle Kontseilutik edozelako bortizkeria-adierazpenak gaitzesten ditugu eta gure kezka plazaratu nahi dugu espazio itxi eta jendetsu horietan ke-potoen erabilerak pertsonen segurtasuna eta osasuna jokoan jarri dituelako. Gainera, gure elkartasun guztia adierazi nahi diegu kaltetutako ikasle, irakasle eta langileei.

Kezkatuta gaude oso halako jarrerak arreta martxoaren 3aren esanahitik at debideratu dezaketelako, baita ikasleriaren funtsezko eskubide den eta, betiere



IKASLE
KONTSEILUA
CONSEJO DE
ESTUDIANTES

modu baketsu eta arduratsuan egiten denean, protesta bide legitimoa den etenaldi akademikoaren tresnari berari kalte konponezina eragin diezaioketelako.

Unibertsitate kritiko, plural eta baketsua

Martxoaren 3a oroitzapenerako, hausnarketarako eta demokraziaren defentsarako eguna da. Unibertsitate publikoak pluralismo ideologikorako, eztabaidarako eta ideien truke baketsurako espazio izan behar duela berresteko aukera ere ematen digu.

Ikasle Kontseiluak protesta eta mobilizazio eskubidea irmoki defendatzen du, baina adierazpen modu horiek besteei, bizikidetzarekiko eta guztiok partekatzen ditugun espazio komunekiko errespetuz gauzatu behar direla ere badio.

Martxoaren 3aren 50. urteurrenean, memoriarekiko, bizi-baldintza duinen defentsarekiko eta ikasleon eskubideak ahuldu beharrean indartu egiten dituen protesta baketsua sustatzearen alde dugun konpromisoa berresten dugu.

EHUko Ikasle Kontseilua



IKASLE
KONTSEILUA
CONSEJO DE
ESTUDIANTES

Kontaktua:

ikasle.kontseilua@ehu.eus

94 601 2448

X: @IkasleKontseilu

Instagram: @ikaslekontseilu

Linkedin: www.linkedin.com/company/ikasle-kontseilua

www.ehu.eus/es/web/ikasle-kontseilua